

## Txakur kontuak

## II

*Rolan*, otso-txakur beltzeran, bikaña, txiki-txikitatik zegon gurean. Zenbat nai genion da nola erabiltzen gendun... Jainkoak aurtxo maitegarri bat bializigun arte!

*Rolan*'i etzion onik egin aren jaiotzak. Umetxoari kontuak egiten asi orduko urreratzen zitzaigun kontu aiek beretzako ziralakooan-edo, baña bereala triste ta belarri-makur txokoratzen zan beretzat ari ez giñala igartzean.

Beñola aurra seaskan lo utzirik, baratzaraño atera nintzan eskuan zerbait eramanaz. Lanetik begiak jaso nitun baten ikusi nuan bildurgarriak eman zidan barru-ikarak ez du izenik. *Rolan* gure txakur aundia iskallertan bera... ortzetan nere umea, zekarrela! Karraxi ikaragarri bat egin nun korde gabe erortzean.

Seneratu nintzanean, neure bular gañean etzunda irribarreka arkitu nun semetxoa. Albotik arpegia maitekiro-miasten *Rolan*. Inguru danean kea ta kea; izan ere etxea sutan zegon.

Ordu larri artan, sua zala ikustean gure *Rolan* jatorrak, bere enbiditxo guztiak aztu ta gure ongure ta maitasuna kendu zizkion ume berbera erioztatik atera zigun.

(I. H. R. Andrea)

\*\*\*

Imalaya aldean mixiolari nengoala, bein baten, tibeteko gizon bi iritxi ziran gure etxalderaño tratu-txar asko artutako itxuradun txakur izugarri bat katetik zekartela. Bear zuten jatenaren ordeztxakurra utzi zidaten, baña bizi-amorrotua zala ta Jainkoarren beti lotuta euki bear nuala adieraziaz. Ijito bezela etorria zalako «motxalle» jarri nion txakurrari. Neuk ematen nion jaten baña urrutitik eta kontu ta maitekeri asko esanaz. Iru

egun barru buruan igurtzi bat edo beste egiten ere ausartu nintzan. Asarrea dala ere, laguna bearra izango du noski, pentsatzen nun nere baitan.

Laugarren egunean katetik azkatu nun. Tximista-antzo abiatu zan, atzera begiratu ere gabe. Basoan ezkuta ta galduko zalakoan, baña baizera! 30 nigana. Indioak erio baten ezkutatu ziran danak, eta nik iges egin ez banun, bildurrak laga etzidalako izan zan. Zirudianez, ortzetan birrinduko nindun. bat metro zalapartan egin orduko itzuli zan berriro ta or nun datorren

Baña ez, gañean nuala uste nuanean, bat-batean gelditu zan. Egon ezinka ta urduri, bere buru aundia jasoaz, begi samurrez so-egiten zidan, nere laztanen egarri...

Geiago egin nion. Bere lepo sendora besoak bota ta bere gain negar egin.

Arrezkero «Motxalle'k» mixio'ko ume guztiak lagun izan zitun. Deabrukeriak egiten zizkioten, zaldi-ordez erabilli ere bai, baña etzuan «Motxale'k» asarrerik erakutsi, etzion egundo iñori kalterik egin. Bera lotu bearrik ere ez gendun sekula izan.

Gauero bezela, etxe ingurua zaitzen ziarduan baten, gugana sartu naian zebillen leopardo izugarri bati arpegi eman zion, eta pizti-tzarra uxatu bazun ere burruka artan artutako zaurietatik il zan «Motxalle» gizajoa. Dannon artean lur-eman genion gure lagun zintzo ta maiteari.

(C. T. P.)

(Jarraitzeko)

